



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

Donostia, 2026ko irailaren 14a

PASTORAL URTE BERRIAREN HASIERAN

Anai-arreba maiteok:

Pastoral urte berri honen hasieran, nire agur hurbila eta maitekorra helarazi nahi dizuet. Hasiera berri hau ilusioz, itxaropenez eta misiorako prestutasun berrituaz bizi dezagula opa dizuet.

Parrokietan, elkartean, mugimenduetan eta elizbarrutiko hainbat errealitateetan eguneroko bizitzari heldu diogu berriro. Katekesia, ospakizunak, heziketa topaketak, karitate eta gizarte ekintza, haur, gazte eta familiekin egindako pastoral lana, eta gure Elizaren eguneroko bizitza sostengatzen duten beste hainbat ekimen eskuartean ditugu ostera. Leialtasunez eta sormenez aurrera eraman nahi dugun pastoral urte berri baten atarian gaude, beraz.

Enrique Ormazabal jaunaren ordenazioaren berri onarekin hasi dugu pastoral urtea. Bergara aldean garatuko du bere ministeritza. Halaber, Elizbarrutiko gazte bat seminarioan hasi delako ere poztu gara. Pozez eta itxaropenez betetzen gaituzten albisteak dira. Esaterako, Caritasen bidez «kolokazio agentzia» propioa eta laneratzeko enpresa martxan jarri ahal izango dugunaren berri ona. Zalantzarik gabe, oso tresna garrantzitsua izango da pertsona askori lan duina lortzen laguntzeko eta bideratzeko, enplegurako kualifikazioa ere eskainiz. Aspalditik espero zen ametsa egia bihurtu da. Askok dira albiste onak eta pastoral urte hasieran animatzen gaituztenak.

Ikasturte berri honetan azpimarra berezia egin nahiko nuke pare bat gaietan.

Batetik, bokazio-pastoraltza nabarmendu nahi nuke berriz ere. Gure elkartean bokazioaren benetako kultura hazten jarraitu behar dugu, gazteei bereziki Jainkoak beren bizitzetatik zer nahi duen galdetzen lagunduz, eta eskuzabaltasunez erantzutera animatuz. Jainkoari esker, gazte-talde handi bat, neska-mutilak, bokazio-bereizmen horretan daude, eta horrek kristau-bizitzan laiko, pertsona sagaratu edo apaiz gisa beren bidea aurkitzen laguntzen die. Ez diezaiogun utzi haien alde otoitz egiteari eta, ahal dugun neurrian, parte har dezagun gure parrokietan eta elizbarruti mailan proposatzen diren otoitzaldi eta berariazko jardueretan.

Bokazio-pastoraltzarekin batera, eraberritze pastoral eta misiolaria helburu duen prozesuan aurrera egiten jarraitzen dugu. Dakizueenez, ikasturte honetan bete-betean murgilduko gara Donostiako Elizaren lehenengo Elizbarrutiko Sinodoaren prestaketan eta ospakizunean. Honek gure Elizbarrutian azken urteotan jarraitutako bereizmen prozesuari amaiera emango dio.

Gipuzkoako Elizbarrutiko lehen Sinodoaren ibilbidea urriaren 17an Seminarioan egingo den bilera batekin hasiko da, hurrengo hilabeteetan biziko eta gauzatuko dugunari buruzko sentsibilizazio eta argibide aldi bati hasiera emanez. Gonbidapena zabaltzen hasiak gara. Espero dut Elizbarrutiko Sinodoa, Elizak nahi duen bezala, tresna ona izatea, gotzainari elizbarrutiaren gobernantzan laguntzeko; benetako aukera bat gure elkarteak berritzeko, misioan berritzeko, suspertzeko eta elkarrekin bidea egiten are gehiago ikasteko. Denok gara beharrezkoak. Apaizak, diakonoak, erlijioso-erlijiosak, laikoak, gazteak eta adinekoak, elkarte txiki eta handiak: denok dugu zer ekarria eta denok gaude parte hartzerantz deituak.

Elizbarrutiko Sinodorako ibilbidea sentsibilizazio, parte hartze, entzute, komunioan egingadako elkarrikeria, bereizmen eta zehaztapenerako aldia izango da. Hasitako prozesuarekin jarraituz, Jaunak gugandik zer nahi duen ez ezik, nola nahi duen ere entzun, hitz egin eta bereizi nahi dugu elkarrekin, Jainkoak irekitzen dizkigun etorkizuneko bideak aurkitu eta marraztu ahal izateko. Ez geure buruari begiratzeko, baizik eta hobeto ebanjelizatze, hobeto zerbitzatzeko, agian dagoeneko ezagutzen ez duten askorengana Jesu Kristo hurbiltzen jarraitzeko; gehien sufritzen dutenengandik, txikienengandik eta bazterrean geratzen direnengandik bereziki hurbil jartzeko. Hurrengo hamarkadetan ere, Gipuzkoan Eliza bizi eta misiolaria izaten jarraitu nahi dugu, Ebanjelioa alaitasunez iragartzeko eta hurbiltasunarekin, zerbitzuarekin eta maitasunarekin sinesgarri egiteko gai izango dena.

Ikasturte bereziki pozgarria hasiko dugu, beraz. Eskuzabaltasunez bizi dezazuen animatzen zaituztet, gure elkarteetan komunioa zaintzera, Elizbarrutiko Sinodoaren ibilbidean aktiboki parte hartzera eta, batez ere, Jesu Kristo gure bizitza eta misioaren erdigunean jartzeari inoiz ez uztera.

Mariak, gure Amak, lagun gaitzala eta elkarrekin bidea egiten lagun diezagula.

Nire maitasun guztiarekin agurtuz, bedeinkatzen zaituztet.

In Corde Matris,

✠ Fernando Prado Ayuso, CMF
Donostiako gotzaina